

Euskal Herriko hezeguneen «balioen» berri ematen du Mikel Estonbak kaleratu berri duen liburuan.

GORKA EROSTARBE

Unibertsitateko irakasle batek sartu zion hezeguneekiko «arra» Mikel Estonbari. Pixkana-pixkana, Euskal Herriko hezeguneak bisitatzen eta ikeritzen hasi zen, eta Elhuyarren bitartez *Euskal Herriko hezeguneak* izeneko liburua plazaratu du. Gaiari egoki dator kion Irungo Plaiaundi Parke Ekologikoan solastu ginen.

Hitz gutxitan nola definituko zenituzke hezeguneak? Zer dira?


Hezeguneak definitzea oso zaila da, definizio asko daudelako. Hezegunea ekosistema mota bat da eta ekosistema hori baldintzatzen duen ezaugarria uraren presentzia da. Presentzia hori izan daiteke agerikoa, ikusten delako, edo izan daiteke lurra oso hezea dagoelako, eta horrek landare bereziak agertzea eragiten du. Urarekin zerkusua duen ekosistema bat da, baina itsasoa, ibaiak... kendu beharko genituzke, horiek beste ezaugarri batzuk dituzte eta. Orduan, uraren presentzia izateaz gain, hezeguneen beste ezaugarri bat izango litzateke, bada, lehorraren eta uraren arteko harremana oso estua dela. Hori ez da gertatzen itsasoan edo ibaietan edo aintzira handietan; horietan beste ezaugarri batzuk gailentzen dira. Hezeguneetan uraren eta lehorraren arteko elkarrekintza oso estua da.

Zein hezegune mota nagusi daude Euskal Herrian?

Euskal Herriko hezegune handienak kostaldekoak dira. Euskal Herria, orokorrean, nahiko menditsua da, eta halako orografiak ez du aukera handirik ematen beste toki batzuetan dituzten hezegune handiak izateko. Hemen, Euskal Herrian, ibaien bokaletan daude padurak eta abar. Horiek dira hedaduraz handienak. Euskal Herria askotarikoa da ekologiaren ikuspegitik. Gu, justu, bi klima mota handien muga gaude: mediterraneoaren eta atlantikoaren muga gaude eta, horrexegatik, Euskal Herria ekologiaren ikuspegitik oso aberatsa da. Hezeguneak ugaritasun horren adibide dira. Euskal Herrian, nahiz eta tamaina txikikoak izan gehienak, mota asko dago: mendi garaietako glaziar jatorriko hezeguneak, zohikaztegiak, Euskal Herriko leku elkorrenetan azaltzen diren urmael endorreikoak... Sekulako aniztasuna, beraz.

Gainontzeko lurraldeetako hezeguneekin alderatuz, Euskal Herrikoekin bade bereizgarri apartekorik?

Euskal Herrian oso eremu txikian hezegune mota asko dago. Klima bakar bat daukaten tokietan bi edo hiru motatako hezeguneak agertzen diren bezala, hemen, muga horretan gaude-



Mikel Estonba

Biologoa eta Txingudi ikastolako irakaslea

nez, hezegune mota pila bat dago. Tamaina txikikoak denak. Agian, horregatik ez zaie eman duten garrantzia.

Euskal Herriaren baitan non daude, batez ere, hezeguneak?

Hezegune motaren arabera, hori: zohikaztegiak mendi garaietan ateratzen dira; urmael endorreikoak, Erribera edo Arabako hegoaldean; he-

zegune karstikoak, inguru karstikotetan. Oso zabalduak daude hezeguneak. Ia-ia Euskal Herri osoan badira.

Zeintzuk dira hezegune horien balio ekologiko nabarmenenak?

Hezeguneak oso aberatsak dira elikagaien aldetik, eta elikagaietan oso aberatsa den edozein ekosistematan bizidun asko izaten da. Agian, hegaztiak dira bizitza horren adibiderik ikusgarrienak. Baina horren azpian bada go intsektu, zizare eta bizidun ezezagunagoen ikaragarriko aberastasun bat, eta horiek ekarrarazten dituzte ikusgarriagoak diren beste bizidun horiek (arrainak, hegaztiak...).

Hezeguneen babesean dauden espezie horietan badago galbidean edo arrisku berezian dagoen bat?

Hezeguneetako espezie asko daude arriskuan. Hezeguneak duela gutxi arte leku osasungaitz eta balio gabeko zat jo izan dira, eta, horren ondorioz, horietako asko lehorte eta beste zereginetarako erabili izan dira, eta kontuan hartu behar dugu hezeguneetan bizi diren animaliak eta landareak soil-soilik bizi daitezkeela toki horietan, uraren eta lehorraren arteko ekosistema hauetan bizitzeko moldatuta daude eta.

Herritarrek zenbateraino dakite hezeguneen balioaz?

Gutxi, oso gutxi dakite. Gu aspaldidanik ari gara horretan eragin nahian. Oraindik beste garaietako inertiak oso handiak dira. Jende askok hezegunez jakin duena izan da ezertarako balio ez duten guneak direla. Hobe dela horiek betetzea eta bertan futbol zelai bat edo industrialde bat edo beste edozein gauza egitea. Ekologiaren balioa duela gutxi arte ez zaie onartu hezeguneei.

Euskal Herrian ba al dira oraindik lehengoratu daitezkeen hezeguneak?

Badira zenbait leku nekazaritzarako erabiltzeko garai batean hezegune izaera galdu zutenak. Horiek gehienak, batez ere, itsasadarren ertzetan dira. Leku horiek oso erraz itzul daitezke lehengo egoerara. Nahikoa da nekazaritzarako lur horiek lortzeko altxatu ziren hormak bota eta berriro ura sartzen uztea oso tarte txikian berriro ezaugarri naturalak errekuaratze. Txingudin, adibidez, hori frogatu da. Zenbait horma bota egin dira eta urte batean nahiko naturalizatua geratu da. Hezeguneek lehengoratzeko sekulako ahalmena dute, eta utziz gero, beraiek bakarrik beren egoera normal edo naturalera itzultzen dira.

Erakunde eta egitura ofizialetan badago nahikoa interes gai honen inguruan?

Nik kontraesan handiak ikusten ditut. Batetik, Txingudi edota Urdaibai bezalako hezeguneak goraiatzeko, babesten eta errekuaratzen ari dira, eta, bestetik, balio bera baina hedadura txikiagoa duten beste batzuk suntsitzeko lehengo argudio berak erabiltzen ari dira. Orain dela oso gutxi ikusi dugu Donostian Urumeako itsasadarrean gelditzen ziren padura eremu txikiak suntsitu dituztela duela 20-30 urte erabiltzen zituzten argudio berak erabiliz: 'Horrek ezertarako ez du balio, belar txarrak besterik ez dira...

Euskal Herriko hezeguneak
MIKEL ESTONBA

LIBURUAREN DATUAK

- **Izenburua:** Euskal Herriko hezeguneak
- **Egilea:** Mikel Estonba
- **Argitaletxea:** Elhuyar
- **Orri kopurua:** 152